



Martin Harrieten hiztegiak: eraketari buruzko zenbait berri

Blanca Urgell

► **To cite this version:**

Blanca Urgell. Martin Harrieten hiztegiak: eraketari buruzko zenbait berri. Ricardo Etxepare, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra. Beñat Oihartzabali Gorazarre. Festschrift for Bernard Oyharçabal, "Julio Urkixo" Filologia Mintegia, pp.873-890, 2009.

HAL Id: artxibo-00657027

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00657027>

Submitted on 5 Jan 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Martin Harrieten hiztegiak: eraketari buruzko zenbait berri

Blanca Urgell
(UPV/EHU - JUMI)

Abstract

In this work, we present new data and an original hypothesis regarding Martin Harriet's grammar (1741), and in particular concerning the two vocabularies —Basque-French (BF) and French-Basque (FB)— that it contains. First, we will offer the testimony of the author himself regarding his work, larger and more ambitious than usually acknowledged (1.1). Furthermore, we will place the vocabularies in the context of the history of Basque lexicography, by comparing the size of his nomenclature with other dictionaries of the time (1.2). Then, we will show that a formal analysis reveals that BF comes from a French-Basque dictionary similar to FB, but probably larger than that one. This allows us to say that FB is not a mere re-elaboration of BF, the hypothesis currently admitted. We speculate that both dictionaries are the outcome of a separate selection of lexical entries having their origin in the hypothetical bilingual dictionary proposed (2 and 3). Finally, we show that Harriet used as a source some previous works: besides Axular, that we already knew, we also find traces of Voltaire, Leizarraga and Xurio at least (4).

0. Sarrera*

Lan honetan Martin Harrieten gramatikako hiztegiak —euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara— hobeto ezagutzeko zenbait datu eta hipotesi berri aurkezten dira. Alde batetik, azterketa formalak erakutsiko digu hiztegi bien arteko erlazioa orain arte oinarrizko hipotesi gisa erabili dugunaz oso bestelakoa datekeela (§ 2 eta 3). Bestetik, aise frogatu daiteke, baita azaleko hurbilketa batez ere, Harrietek hiztegiotan aurreko liburu batzuk —jadanik

* Lan hau Madrilgo Ministeritzak lagundutako "Monumenta Linguae Vasconum (III)" (FFI 2008-04516) Ikerketa-Egitasmoaren eta Eusko Jaurlaritzako GIC07189-IT-473-07 Ikerketa Taldearen emaitzen artean kokatzen da.

ezaguna zen Axularrez gainera— baliatu zituela (§ 4). Hauetara baino lehenago, baina, Harrieten lanen berri apurra dakargu (§ 1).

Lan hau Beñat Oihartzabalengan pentsatuz burutua da. Hizkuntzalari bezala ezagunago bide den arren, Filologian lan handiak egin ditu, eta azken urteotakoetan zalantzarik gabe maisu-lan izena merezi dutenak, hemen gutxitan ibili diren bideak jorratu baititu gure artean. Lan xume honekin ikertzaile gisa eta pertsona gisa diodan begirune eta lege ona adierazi nahi diot. Urte askotako!

1. Harrieten lanen berri apurra

1.1. Gramatika bere gainerako lanen artean

Martin Harriet “Larresoroko jaun notari erreialaren” lan bakarra ezagutzen dugu: *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hizcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*, Baionan argitaratua 1741. urtean. Gramatikan zehar, ordea, egileak beste lau lan aipatzen ditu; bi hasiera-hasieran, oniritzien ondoan, “Abisua Autorac” deritzan ataltxoan, biak laster argitaratuko zirelakoan:

Uste dut laster iganen dela imprimatua *escuaraz eta espaiñolez* eguiña dudan Gramatica bat. Baita berce liburu bat Lapurdico Costuma escuararat itçulia, berce cerbait escualdunençat guisa den gauçarequiñ.

Eta beste bi “Escualdunei gomendioa eta Abisua” atalean:

...eta nola frances hitzcunçac ez baitu escribatcen duen beçala irakhurcen, eta haiñitz premia baita escualdunençat francesa irakhurcen iaquitea, liburu chumetto bat eguiña dut nausiric gabe francesa irakurcen ikhasteco, baita berce liburu bat bi partetan, lehenbicoa escuaratic verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen khenceco (...), berce partea da escualdunec berce hitzcuncetaric hartuac dituzten hitcen khenceco (Harriet 1741: 507).

Gure hitzetan ipinita, lanok honako hauek ziratekeen: (1) beste gramatika bat, oraingoan gaztelania ikasteko; (2) Lapurdiko kostumaren euskarazko itzulpena, euskaldunentzat egokiak diren beste zenbait gauzarekin; (3) frantsesa irakurtzen ikasteko abeze bat; eta (4) lan

arauemaile bat, ondo bitxia, euskara hobetzeko asmoz ondua; zehatzago, aditz trinkoak eta maileguak euskaratik kentzeko asmoz.¹

Horrezaz gainera, gramatika bera ez dugu osoki ezagutzen, haren laurdena bakarrik baizik:

J'ay partagé mon travail en quatre tomes égaux, le premier tome est tel que vous voyez, le second tome contiendra les cinq Conjugaisons des verbes tout au long, qui sont *naiz*, &c. *dut*, &c. *daröiat*, &c. *aut*, &c. & *nitçαιο*, &c. le troisième tome est un dictionnaire, pour les mots qui ne se trouvent pas dans les deux premiers tomes, & le quatrième tome contiendra la construction des noms propres, la construction des cinq Infinitifs, la construction des verbes, la construction des prépositions, & un autre recueil des phrases choisies dans la langue basque. Le second tome est achevé de composer. Le troisième l'est aussi quelque chose près, & le quatrième tome aussi est presque recueilli, & on trouvera assez de remarques en abrégé en ce tome seul, pour comprendre la propriété de la langue basque, quoique mon dessein n'alloit jusques l'à au commencement de ce travail (1741: 504-505).

Egilearen esanok alde batera utzita, ez dago gainerako lan hauen aztarrenik ere. Suntsituak bide ditugu guztiak, eta agian batzuk bukatu ere gabe alde batera utziak —ez litzateke ezinezkoa baten bat egilearen gogoan baino ez egotea ere—, garai haietako hainbat eta hainbat bezalaxe: gogora ditzagun Pouvreau, Bidegarai, Etxeberri Sarako edo Urteren izenak, besteak beste (ik. Lakarra 1992b: 281-284). Testuinguru honetan mirarizkoa da ia gramatikaren argitalpena bera (berrargitalpenik ez: cf. Vinson 1891-1898: 61. zb.); izan ere, hauxe dugu XVII-XVIII. mendeetako Lapurdiko loraldiaren alderdirik ahulena: elizliburuak erraz xamar argitaratzen ziren, une batez bederen, *Gero* bezain jantziak izan arren; gramatika eta hiztegiak, ostera, egin bai, baina argitaratu ez. Harrieten gramatika honen alboan salbuespen bakarra dugu, salbuespen xume-xumea, halere: Voltaire-ren hizkuntz eskuliburutxoa (cf. Lakarra 1997, 1999). Euskara soziologiko eta kulturalki zertan zen argi uzten duten adierazle nagusietako bat dugu hau (ik. orain Oyharçabal 2001a, 2001b).

¹ Larramendirenean hasita (1729), sistema perifrastikoa —erregularra izaki— jatorragotzat jotzen dute gramatikagile gehienek oso berandu arte; haatik, Harriet dugu hortik eta trinkoak euskaratik kentzeko asmora iristen den gramatikagile bakarra (Gómez 1989: 361; Gómez & Sainz 1995: 237-238).

1.2. Hiztegien nomenklaturaren tamaina

Gramatikaren heren bat egiten dute bi hiztegien artean: *Dictionarioa escuaraz eta frantsesez, çoiñetan hasten baitire hitzçac* [sic] *escuaratic* deritzonak (hemendik aurrera *EF*) 56 orrialde (268-323) ditu, eta *Dictionarioa frantsesez eta escuaraz* delakoak (*FE*) 117 (324-440). Orritan bezala sarreratan ere *EF* alderantzizkoaren erditsuan geratzen da: 1.590 sarrera ditu, eta *FE*-k 3.190.²

Zuzen zebilen Larramendi, beraz, "cortitos" deitu zienean (1745: xxxv). Egiarki, tamainaren aldetik ez dira hiztegitzat hartzeko modukoak, hitz zerrenda luzexkak baizik,³ Pouvreuren hiztegitik (8.100 bat sarrera; Sarasola 1998: 32) urrun, eta Larramendiren erraldoitik are urrunago (40.000 sarreratik gora; Urgell 2000). Halere, Larramendiren *Hirukoitza* arte ez zegoen Euskal Herrian hiztegitzat hartzeko moduko ezer argitaraturik, eta argitaratuen artean luzeenak dira Harrieten hauek, biak batera ez ezik bakoitza berez ere, Voltoireren eskuliburuko 1.050 sarreren ondoan.⁴

Harrieten hiztegien nagusitasun honek ez zuen *Hirukoitza*-renak beste iraun, baina ez dabilkio oso atzetik: XIX. mendearen lehen zatian oraindik ere ezinutzizkoak ziren Iparraldeko lexikoaz deus jakin nahi izanez gero, Añibarro, Lécluse eta Aizkibel lekuko, besteak beste, mendearen erdialdera arte ez baitzen lortu hango euskarari buruz Harrieten bano ezer handiagorik argitaratzea.⁵

2. Nomenklaturaren antolakuntza

² Lakarraren estimazioa (1994: 21), sarreren orriko bataz bestekoa erabiliaz, nahikoa hurbiltzen zaie egiazko kopuruei.

³ Svensén-ek (1987: 36) 5.000 sarreratan jartzen du hiztegirik txikienen (sakel-hiztegien) beheko muga, adibidez.

⁴ Argitaraturik, oso gauza gutxi zeuden, eta denak Harriet eta Voltoireren lanak baino are xumeagoak: Leizarragaren Testamentuko hiru zerrendak —izen berezien azalpen etimologikoa (Mm 3 v-Mm 4 v), hitz zailen azalpena (ã 1 r-ã 7 r) eta lapurtera (?)—zubererazko hiztegiñoa (ã 7 r-v), Oihenarten *Notitia*-ko zerrenda etimologikoa eta *Neurtitz*-etako glosarioa, eta Larramendiren *De la Antigüedad*-eko etimologikoa (Urgell 2002a).

⁵ Eta Harrietenaz besterik nekez: Lécluse-ren lanak baino ez, dakidalarik, Archuren gramatikakoa (1852) arte; une honetan, oster, Iparraldeko hiztegitzaren loraldia dei dezakeguna hasten da, Chahoren hiztegi bukgabearekin (1855) hasi ere (Urgell 2002a).

Izenek aditzera ematen dutenez, "Harrieten hiztegiak" izenaz ezagutzen dugun lan lexikografiko hau norabide bietan eratutakoa dugu.⁶ Hizkuntzek zutabe bana hartzen dute (ik. beheraxeago 5. adibidea); euskal zutabeen letra borobila erabiltzen da bi zerrendetan, eta frantsesezko zutabeen letra etzana.

Alfabetoaren arabera antolatutako hiztegia da, egileak berak azaldu bezala:

Seguidan aurquituco dituçu jesueco letrac beçala⁷ hitz beharren direnen explicatione edo balioa, escuaraz *atic* hasten diren hitçac lehenic, guero *betic* hasten direnac, eta guero berceac seguida hartan, halatan noiz ere jaquiñ nahi baituçu nola deitzen den *aita* francesez, beha dioçoçu nola hasten den escuaraz hitz hori, eta aurquitcen duçu *ai* hasten dela, goan çaitte bada *ai* hitçac hasten diren plamura, eta aurquituco duçu *aita*, *pere*, eta hala eguiñen duçu bercetan ere, hitçac escuaraz hasten diren diccionarioan, eta jaquiñ nahi duçunean cembait francez hitz, aurquituco duçu guisa hartan berean francez hitçac lehenic eçarriac diren diccionarioan... (Harriet 1741: 266).

Oso pasarte garrantzizkoa da euskal kulturaren historian, eta oso adierazgarria. Antzeko azalpenak aurkitzen dira lehen hiztegi alfabetikoetan (cf. Osselton 1995), egileek sentitzen baitute irakurleak sisteman hezi beharra. Esan beharra dago, halere, berandutxo dela Europako testuinguruan eta areago Frantzian, non aurreko mendean alfabetoaren araberako ordena "le bell ordre" bilakatua baitzen (Quemada 1967: 328). Honek ematen digu, azalpen askok baino gardenago, Harrietek buruan zeukan erabiltzailegaiaren —ziurrenik erdi-mailako euskaldunen (Oyharçabal 2001a: 31)— heziketaren berri: bistan da Larresoro eta Paris ez zirela bat.⁸

⁶ Halere, ez dira bata bestearen iraulketa hutsak, ez eta hurrik eman ere. Aurrerago mintzatuko gara bien artean dauden ezberdintasun garrantzizko zenbaitez (§ 3).

⁷ *Jesus* 'abecedario' esanahiarekin ondo ezaguna da Iparraldean eta: ik. *OEH*, s.v. *jesus* 3. Harrieten agerraldi honek —*OEH*-ko errolda osatu beharko lukeena— urte asko kentzen dizkie gainerakoei. *Jesu* aldaeraren beste berririk ez da jaso, baina ez dirudi ezinezkoa denik.

⁸ Atera kontuak maila apalekoei buruz, eta orduan are hobeki ulertuko da zer esan nahi duen Oyharçabalek esaten duenean —euskal liburugintzaren soziologiaz egin duen lan bikain horretan— Sarako eskolaren gainbeheraren arrazoi nagusietako bat irakurlegaien mailaren jaitsiera izan zela.

2.1. Lakarraren analisia

Lakarrak oso ondorio jakingarriak atera zituen Harrieten lan egiteko formari buruz hiztegien antolakuntzaren analisitik. Aurkez dezagun ezer baino lehenago berea, punturen batean osatu ere, handik aurrera egin ahal izateko.

Orduko hiztegieta ohi zen bezala (cf. goian aipatutako Osselton eta Quemadaren lanak, besteak beste), alfabetatzea ez da erabatekoa Harrietenean, baizik eta gehienetan lehenengo bi letrak bakarrik kontuan harturik eratua (Lakarra 1994: 21). Ezaugarri hau ez diogu zabarkeriari egotzi behar: hitzak antolatzeko era hau primitibo baina oso iraunkorra dugu. Honek beste bi fenomeno izan ohi ditu lagun, batzuetan eragile, bestetan ondorio, maizenik bietatik agian (Quemada 1967: 323): lehenik, errazagoa da handik eta hemendik hartzea zerrenda osatzeko, eskuarki zerrenda ezberdinetatik;⁹ bigarrenik, familia bereko hitzak elkarrekin jar daitezke, alfabetoari hertsiki jarraituz gero bata bestetik bereizita eta are batzuetan urruntxo agertuko liratekeen bitartean. Harrieten iturriez ezer gutxi dakigu oraingoz alderdi honi etekinik ateratzeko,¹⁰ baina bestalde agerian jarri du Lakarrak Harrieten hiztegieta bigarren graduan sarrerak familiaka antolatuta daudela, AD hasierako hitzen segidan egiazta dezakegun bezala (taket artean elkarrekin jarritako familiakideak bildu ditut):

- (1) adiña - [adreçatcea - adreça - adreta] - [adisquidea - adisquidea - adisquidetassuna] - adarra - adarailua - [adarduna - adarra] - [aditcea - aditua] - afflititcea - affarma - [affalcea - affaria] - (...) - [aitaso - aita - aitaguiñarriba]...

Sistema ez da zeharo trinkoa, halere,¹¹ batez ere *EF*-n, eta batez ere hiztegitxo honen hasieran,¹² eta honegatik inoiz hitzen bat familiarik bereizita agertzen da, eta sarri adierak bata bestetik bananduta (azpimarra nirea):

⁹ Oso adibide argia da Larramendiren *Eranskina*: ik. Urgell (2002b: § 1.5).

¹⁰ Gero luzatuko gara gai honetaz: ik. § 4.

¹¹ Eta hau ere ohikoa zen orduko hiztegieta (cf. Osselton 1995 berriz).

¹² "Salbuespen bide da *EF*-ko 1. orrialdeko hasierako 'nahasketa' letra diferenteko sarrerarekin" dio Lakarrak (1994: 21, 71. oh.), *Abondancia-abandonatcea, largatcea-largatua-largatua-abostua* segidari buruz. Hiztegieta zehar hainbat dira ondotik partizipioa bi aldiz duten aditzizenak (frantsesezko zutabeen genero bereizkuntza egin ahal izateko). Hori ez da bitxia, beraz, baina bai sarrera buruan

- (2) adarra, *branche* - adaraillua, *brique* - adarduna, *cornart* [sic] - adarra, *corne*
agradagarria, *agreable* - agorra - agradatcea, *agr eer* - agradamendua,
agr ement - aguercea - aguertua - aguertua - agorienta - agradatcea, *plaire*
incapacit e, ecindura - incertain, menturacoa - *inclination*, talendua, pendura -
incertitude, mentura

Oharkabeko errepikapenen bat ere eragin du honek:

- (3) boucher, *carnacera* - *boucle* - *boudin* - *bou e* - *bo uis* - *boule* (...) *bourse* -
boucher, *tapacea* - boucher, *carnacera*, *haraguina* - *bouchon*...

Inoiz *EF*-n gaikako segidaren bat dago, hitzak buruz gogoratu izan bailituan:

- (4) *abostua* - *abendoa*
lana - *laboratcea* - *laboran a* - *laboraria*

2.2. Azalpen berri bat EFko antolakuntzarako

Lakarraren azalpena eta handik eratortzen diren beste gogoeta guztiak oso interesgarriak badira ere, bada gertakari horietatik *EF*-ko batzuk argi eta errazago azaltzeko biderik. Azter dezagun *AM*-z hasten diren hitzen segida, esate baterako:

- | | | |
|-----|---------------------------------------|-----------------------|
| (5) | <i>amiragarria</i> , | <i>admirable</i> . |
| | <i>amodioa</i> , | <i>amour, m.</i> |
| | <i>amodiosa</i> , | <i>amoureux, m.</i> |
| | <i>amodiosa</i> , | <i>amoureuse, f.</i> |
| | <i>amicionea</i> , <i>irrixa</i> , | <i>ambition, f.</i> |
| | <i>amoi na</i> , <i>erremusi na</i> , | <i>aum ne, f.</i> |
| | <i>amagui narreba</i> , | <i>belle mere, f.</i> |
| | <i>ampola</i> , | <i>fiolle, f.</i> |
| | <i>amai una</i> , | <i>marastre, f.</i> |
| | <i>amabitchia</i> , | <i>marraine, f.</i> |
| | <i>ama</i> , | <i>mere, f.</i> |
| | <i>amexa</i> , | <i>songe, m.</i> |
| | <i>amurrai na</i> , | <i>truite, m.</i> |

Ezkerreko zutabera begiratu beharrean, begiak eskuinekoa aldatzea aski da ohartzeko *AM* hasierako euskal hitzen hurrenkera frantseseko baliokideek eman dutela: izan ere, *A-B-F-M-S-T* hurrenkera nagusi bat dugu,

bi euskal hitz agertzea (*EF*-ren hasieran maiztxo gertatzen da, baina) eta bigarrenaren partizipioak ematea.

eta are AD-AM-AU hurrenkera A letraren barruan, bigarren letraraino iritsi ohi den alfabetatze batean espero bezala.

Berrar dezagun *adarra*-ren errepikapena (2. adib.): frantses zutabearen hurrenkera da, hemen ere, *adarra* sarrera birritan agertzeko arrazoia, behin B letrako adieraren azpian, eta gero C letrakoaren:

- (6) *adarra,* *branche*
 adaraillua, *brique*
 adarduna, *cornat*
 adarra, *corne*

Ez da kasualitatea. Hori bezain argia da, adibidez, hurrengo segida laburra, frantsesezko F letratik osoki hartua:

- (7) *alferra,* *fainéant*
 alferra, *fainéante*
 alaba, *fille*
 aldiz, colpez *fois*
 aldi batez, behiñ, *une fois*
 alkhabuça, *fusil*

Halaber, frantsesari jarraitzen dio zintzoki s eta z elkarrekin nahaste dakartzan hurrengo segidak:

- (8) *asqui,* *assez*
 azquena, *dernier*
 azquena, *derniere*
 azpian *dessous, sous*
 aztala, *jambe*
 aztala, *jarret*
 azpia, *jambon*
 astia, *loisir*
 asteleguna, *jour ouvrable*
 astehena, *lundi*
 astehartea, *mardi*
 asteazquena, *mercredi*
 astea, *semaine*
 asqui içatea, *suffire*

Adibideak nahi adina pila daitezke, nahiz —hau ere aitortu behar— den-denak azaldu ez. Hona begi-bistako azalpenik ez duen segida bat, adibide modura:

- (9) *Manua,* *Ordre*
 maitatcea, *aimer*
 maitatua, *aimé*
 maitatua *aimée*

maiz,	<i>souvent</i>
makhilla,	<i>bâton</i>
makhillaca,	<i>à coup de bâton</i>
maitea,	<i>cher</i>
...	

Salbuespenak salbuespen, beraz, badirudi frantsesezko nomenklatura batetik abiatu zela Harriet *EF* egiteko, zehazkiago frantses-euskara zerrenda batetik,¹³ eta euskal kideak han aurkitu ahala —eta han aurkitu hurrenkera berean— ezarri zituela hemen.¹⁴

Zein ote zerrenda hura? Hona berriz ekarri dugun AM-ko segidaren arabera, frantses-euskara zerrenda hura *FE* bera izan liteke, eransketa gutxi batzuekin: eskuineko zenbakiek (*FE*-ko orrialdea eta, behar denean, lerroa) erakusten digute frantsesezko hitz guztiak, bat izan ezik, bertan sarrera buru agertzen direla:

(10)	amiragarria,	<i>admirable.</i>	—
	amodioa,	<i>amour, m.</i>	326-25
	amodiosa,	<i>amoureux, m.</i>	326-26
	amodiosa,	<i>amoureuse, f.</i>	— ¹⁵
	amicionea, irrixa,	<i>ambition, f.</i>	327
	amoiña, erremusiña,	<i>aumône, f.</i>	331
	amaguiñarreba,	<i>belle mere, f.</i>	332
	ampola,	<i>fiolle, f.</i>	362
	amaiçuna,	<i>marastre, f.</i>	382
	amabitchia,	<i>marraine, f.</i>	383
	ama,	<i>mere, f.</i>	385
	amexa,	<i>songe, m.</i>	426
	amurraiña,	<i>truite, m.</i>	435

Bat hura, *admirable*, salbuespena baino zer edo zer gehiago izan liteke, baina. Izan ere, frantsesezko hurrenkeran dagokion lekuan agertzen da

¹³ Frantses hiztegi batetik abiatzea ezinezkoa ez izan arren (Ricardo Gómezek gogoratu didan bezala), intuizioaren kontrakoa ematen du. Horrezaz gainera, hurrengo oharrean aurkituko du irakurleak frantses-euskara zerrendaren aldeko argudio bat, eta *FE* eta *EF*-ren arteko kidesunaren kopuru handia ere (%45) alde letorke (honetaz ik. beherago, § 3.1).

¹⁴ Bidenabar, honek ederki azaltzen du nolatan dauden hainbeste euskal bikote *EF*-ko A letraren hasieran (“abandonatcea, largatcea, *abandonner*” erakoak): eratzen ari garen hipotesiaren arabera, frantsesa-euskara hiztegitik *EF*-ra aldatzen hasi zenean bertako ordainak ere osoki-edo kopiatzen zituen sarrera buru, bat izan zein bi izan; aurrera egin ahala, berriz, gehien-gehienetan ohiko prozedurari heldu zion, iturri-hizkuntzako sinonimoetan letrari zegokiona bakarrik harturik.

¹⁵ *FE*-n ez zaio frantsesezko genero bereizkuntzari lekurik ematen (ik. beherago, § 3.1).

—lehen lekuan, hain zuzen—, hitz guztiak gure *FE* baino (aldez behintzat) osoagoa zatekeen frantses-euskara zerrenda batetik hartuak bailiran.

Hurrengo hitz sailak bigarren aukera hau sendoago bihurtzen du. Gero erraz azalduko ditugun salbuespenak eskuinetara sartuago agertzen dira, alfabetatzea agerian jartzeko:

(11)	Laguncea,	<i>Ac[c]ompagner.</i>	325
	lagundua,	<i>accompagné, m.</i>	—
	lagundua,	<i>accompagnée, f.</i>	—
	laguna,	<i>compagnon, m.</i>	341
	laburra,	<i>court, m. courte, f.</i>	343
	laburtcea,	<i>racourcir.</i>	—
	laburtua,	<i>racourci, m.</i>	—
	laburtua,	<i>racourcie, f.</i>	—
	larrua,	<i>cuir, m. peau, f.</i>	344
	larrutcea,	<i>écorcher.</i>	—
	larrutua,	<i>écorché, m.</i>	—
	larrutua,	<i>écorchée, f.</i>	—
	lama,	<i>flame, m.</i>	362-4
	lausengatcea,	<i>flater.</i>	362-5
	lausengatua,	<i>flaté, m.</i>	—
	lausengatua,	<i>flatée, f.</i>	—
	lausengua,	<i>flaterie.</i>	362-6
	labea,	<i>four, m.</i>	364
	lana,	<i>travail, m.</i>	377-1
	laboratcea,	<i>labourer.</i>	—
	laboratua,	<i>labouré, m.</i>	—
	laboratuac [sic],	<i>labourée, f.</i>	—
	laborança,	<i>labourage, m.</i>	377-3
	laboraria,	<i>laboureur, m.</i>	377-4
	laiecoa, arrontera,	<i>laïque, m.</i>	377-6/7 ¹⁶
	lanceta,	<i>lancette, f.</i>	378
	largoa,	<i>large.</i>	—
	largatcea,	<i>élargir.</i>	—
	largatua,	<i>élargi, m.</i>	—
	largatua,	<i>élargie, f.</i>	—
	largotassuna,	<i>largeur, f.</i>	—
	laudorioa,	<i>loüange, m.</i>	381-3
	laudatcea,	<i>loüer.</i>	381-4
	laudatua,	<i>loüé, m.</i>	—
	laudatua,	<i>loüée, f.</i>	—
	laur,	<i>quatre.</i>	411-12
	laur hogoi,	<i>quatre-vingts.</i>	411-13
	laur hogoieta hamar,	<i>quatre-vingts-dix.</i>	411-14

¹⁶ Euskal ordainak ez dira berak, baina aurrerago aurkituko dugu azalpena (§ 3).

laugarrena [sic],	<i>quatrième.</i>	—
lastoa,	<i>paille, f.</i>	395
laurdena,	<i>pinte, f.</i>	403
lasterrago,	<i>plûtôt.</i>	—
lakhoa, dolharea,	<i>pressoir, m.</i>	408
laurdena,	<i>quart, m.</i>	411-10
laparra,	<i>ronce, m.</i>	419
larombata,	<i>samedi, m.</i>	420
laster,	<i>tôt, bientôt, d'abord.</i>	432

Dakusgunez, hemen ere nagusiki frantsesak erabakitzen du hurrenkera, ez bakarrik lehen bi hizkien arabera, ohi bezala: AC-CO-CU-EC-FL... baita are hirugarrenaren arabera ere: LAB-LAI-LAN-LAR.

Araua hausten duten sarrerak denak bat dira, haustura naturalak, familiak euskaraz eragindako eransketa errazak: hala bada, *laburra-k laburtcea* gogorarazi bide dio, *laboratcea-k lana* eta *largoa-k largatcea*.¹⁷ Alabaina, segidatxo honetan badira hiru eransketa (*large, quatrième, plûtôt*) zein bere lekuan kokatuak frantsesezko hurrenkeraren arabera, nahiz *FE*-n agertu ez, lehenago *admirable* bezalaxe.

Orain arte esandakotik bi galdera sortzen dira. Lehenengoa, hurbilketa formalak agerian ipini digun frantsesa-euskara zerrenda hori zein ote? Bigarrena, Harrieten hitz zerrenda hauetaz eta hauen arteko erlazioaz geneukan irudia zertan eragiten du honek? Lehenengo galdera erantzuten saiatu baino lehen, azken finean Harrieten gainerako lanak ezagutzen ez ditugun heinean anekdotiko xamarra baita, bigarrenari ekingo diogu, lehen hurbilketa gisara baino ez bada ere, askozaz ere garrantzi handiagokoa baita, izan ere.

3. Bi hiztegien arteko aldea

3.1. Lehenengo hipotesia: EF-tik FE-rako garbiketa eta osaketa

Begien bistan dagoen *EF* eta *FE*-ren arteko tamaina eta hizkuntzen ordenaren aldetiko ezberdintasunez gain, Lakarrak (1994) garbi frogatu du badirela bestelakoak ere. Labur bildurik, *FE* zerrenda aberatsago, landuago

¹⁷ Bai eta *larrua-k larrutcea* ere, nahiz honetan frantsesezko hurrenkeran hausturarik izan ez, halabeharrez.

eta garbiagoa da alde askotatik, Harrietek euskal lexikoari buruz zituen ideien eta asmoen ondorio. Ezberdintasunon berri emateko, Lakarrak asumitzen du *FE EF* xumeagoa —oinarrizkoagoa— berregitetik sortua dela; bestela esanda, lehenengo hiztegia *EF* delako hipotesiaren arabera jokutzen du, oinarrizkoena jaso ondoren, handik abiatuta Harrietek euskal lexikoa aukeratu, garbitu eta osatu zuelako ustean.

Lakarraren emaitzak borobildurik, *EF*-ko edukitik *FE*-n hauxe gertatu da:

	gordeak	desagertuak
A	%55 ¹⁸	%45
E	%51,5	%48,5
F	%40	%60
H	%72,5	%27,5
P	%64	%36

Berriz, *FE*-ko edukiari egindako gehiketak honela banatzen dira:

	sarrera berrietan gehituak	lehenengo sarreretan gehituak	<i>EF</i> -ko hitzetan oinarriturik erantsiak
A	%61	%10	%29
E	%46	%8	%46
F	%71,1	%5,8	%15,2
H	%36	%9	%28
P	%74,3	%4	%9,7

Beraz, Lakarrak bi joera antzematen ditu: *EF*-tik *FE*-ra igarotzerakoan sarrerek maiztasun jakingarri batez desagertu egin dira eta, gainera, *FE*-n sarrera berriak ugari erantsi dira, lehenengoak batzuetan osatzeaz gainera.

Lakarrak hiru talde egin ditu *EF*-tik *FE*-rako bidean desagertutako hitzekin: (1) frantseseko genero bereizkuntzak eragindako sarrerek dira galeraren zatirik handiena (%50etik gertu lagin guztietan); adibidez, "ahalguetia, *honteux*, *m.*" eta "ahalguetia, *honteuse*, *f.*" vs. "*honteux*,

¹⁸ Nahasketaren bat dago Lakarraren zenbakietan (1994: 26) atal honetan, oso oker ez banago; ehuneko hau hurrengo atalekoaren arabera eman dut, ez bere zenbakietan oinarrituta.

ahalguetia, berastemia";¹⁹ (2) mailegu gordinegiak bide zeritzatenak (gogoan har gorago aipatu bere asmoa) desagertuen %20 inguru dira A letran, eta gutxiago beste letretan, hauetan ere garbiketaren aztarren nabarmenak egon arren; adib., "arroganta, furfuiatxua, *arrogant*" vs. "*arrogant*, furfuiatxua"; eta (3) "itzuriak edo mailegu larriegiak iruditurik baztertuak" (Lakarra 1994: 29) lirateke aurreko bi sailetan sartzen ez diren apurrak; adib., batetik "abiadura, joanhara, *cours*", eta bestetik "avocata, *avocat*".

Gehiketan, berriz, hiru joera antzeman ditu: (1) sarrera berriak; (2) lehengo sarreretan oinarrituaz moldatu edo sortutakoak; eta (3) lehengo sarrerei egindako gehiketak. Sarrera berriak dira gehienak (A-n %62, E-n %46, F-n %76, H-n %49 eta P-n %84) eta, gutxi izan arren, interesgarriak dira oso osatutako sarrerak —*EF*-ko hitzaren aldamenen "beste berri bat gehitu da hura baino garbiago edo zehatzago, edota haren aberasgarri gerta zitekeena" (Lakarra 1994: 31)—; adib., "errenta, *rente*" vs. "*rente*, alocaria, errenta", baina baita "piztea, *alumer*" vs. "*allumer*, erachiquitcea, piztea".

Lakarrak, beraz, hiru joera azpimarratzen ditu: (1) *FE*-n sarrera gehiago dago, hiztegi osoagoa delako; (2) maileguaren ordezkari beste ezer jartzea, haren alboan beste ezer proposatzea eta are mailegu gordinegiak dituzten sarrerak ezabatzea, dena sar daiteke joera nagusi baten azpian; (3) honekin batera, noski, hitzberrigintzaz ere hitz egin behar: hala maileguen ordezkari proposamenetako asko nola lehengo sarreretatik sortutakoetako asko lehen lekukotasunak dira eta, zalantzarik gabe, ehuneko gora batean hitz berriak bide dira (gai zehatz honetaz, ik. Lakarra 1994: 32-39).

Oraindik ere oinarritzko hipotesitik atera gabe, zehatz daiteke desagertuaren arrazoiak bi era oso ezberdinekoak direla: (1) egiturazko arrazoi bati zor zaio bai frantses generoak bereizi beharrez, bai frantses aditza infinitiboan eta partizipioan (maiz hau ere maskulino eta femeninoan) jaso

¹⁹ Atal honetan zehaztu behar da partizipioak ere *EF*-n maskulinoan eta femeninoan agertu arren, hauen galera (emandako ehunekoan sartuta badago ere) ezin zaiola genero bereizkuntzari egotzi: aitzitik, berez desagertu dira, gehienbat bederen, *FE*-n infinitiboan izan ohi baita aditzaren ordezkari bakarra, *EF*-n ez bezala. Salbuespenen bat bada: cf. "*accoutumer*, *trebatua*. *accoutumé*, *trebatua*. *accoutumé*, *ohitua*".

beharrez *EF*-n zeuden sarrerek *FE*-n jaso gabe geratzea:²⁰ bestela esanda, gai hauetan xede-hizkuntzaren gramatikak agintzen zuen iturri-hizkuntzan zer eman eta nola; (2) gainerako ezabaketetan bakarrik isla litezke —ezer islatzekotan— egileak lexikoari buruz zituen ideiak.

Zehaztapen honen ondoren, A eta L letretatik hautatu dugun laginaren arabera²¹ *EF*-ko euskal hitzen %45 inguru berdin-berdin agertzen da *FE*-n, eta %9 soilik desagertu da batetik bestera. Desagertzeko arrazoiak egiazki ez dira argiak, denetariko hitzak baitaude, egon ere. Batetik besterako igarobidean dagoen gertakaririk deigarriena, mailegu garbiketa da, nahiz eta, antza denez, handiagoa izan den A letran L-n baino, Lakarrak antzeman bezala. Alabaina, ez da garbiketa hutsera mugatzen. Hona mailegukiko hiru joera nagusiak:

1) Hautapena. Mailegu gordinaren alboan agertzen den hitza nahiago du *FE*-n:

<i>abandonatcea, largatcea, abandonner</i>	<i>abandonner, largatcea</i>
<i>accordatcea, bakhetcea, accorder</i>	<i>accorder, bakhetcea</i>

2) Ordezkapena. Mailegua ez eta beste zerbait ipini du:

<i>affligitcea, tristatcea, affliger</i>	<i>affliger, axekhabetatcea</i>
<i>agradagarria, agreable</i>	<i>agreable, nahicaria</i>

3) Hautapena eta frantses aldaketa. Honela begiratuta, balirudike *EF*-n berriaz mailegutasuna agerian jartzen duen frantses kidea hautatu zukeela; *FE*-n, berriz, horren beharrik gabe, askeago jokatu bide zuen:

<i>acta, patua, acte, contrat</i>	<i>pacte, tratua, patua</i>
<i>adreatcea, amaiñatcea, adresser, dresser</i>	<i>regler, chuchentcea, amaiñatcea</i>

Egitadok bat datoz erabat egileak bere hirugarren liburu galduaren bigarren parteaz dioenarekin:

...berce partea da escualdunec berce hitzcuncetaric hartuac dituzten hitcen khentceco, hala nola

Intencionea, chedea

²⁰ Lakarrak jadanik zehazten zuen generoa dela eta egindako ezabaketak “edukin galerarik suposatzen ez duen ezabaketa moeta” ditugula (Lakarra 1994: 27).

²¹ Laginak honela osatuta daude: A letrako *a-alogatcea* zatia (80 sarrera orotara; 62 partizipioak eta generoagatik errepikatutako izenondoak kenduta) eta L letra osoa (90 sarrera orotara; 65 kenketa beren ondoren).

inclinacionea, pendura
inquietaatcea, khechatcea
ingrata, esquergabea, &c.

Lehenbicoac berce hitzcuncetaric dire eta berceac escuara dire.

Edo, hobeto esanda, haratago doa, adibide ematen dituen hitzetatik bakar bat ere ez baita *EF*-n jadanik agertzen; *FE*-ri dagokionez, agindutakoa bezain garbia ez eze, aberatsagoa ere bada:

intention, chedea, gogoa
inclination, talendua, pendura
inquieter, khechatcea
ingrat, eskhergabea

Ildo honetatik, kenketak baino eransketak anitzez ugariago ditu *FE*-k, sarrera eta ordain kopuruek aditzera ematen duten bezala. Iraun duten mailegudun sarrerek ez ezik, bestelakoek ere bigarren hiztegian esanahikideak, aberasgarriak edota zehazgarriak erdiesten dituzte, gehienbat *EF*-n jasota ez dauden osagaiak:

<i>airatcea, voler</i>	<i>voler, avec ailes, hegaldatcea, airatcea</i>
<i>akhusatcea, accuser</i>	<i>accuser, acusatcea, gaineguitea</i> <i>il m'a accusé, ene gaiñ eguin du</i>
<i>laborança, labourage</i>	<i>labourage, laborança, lurlana</i>
<i>larombata, samedi</i>	<i>samedi, egubacoitça, laranbata [sic]</i>

EF-ko hitzak frantses sarrera-buru gehiagoren azpian aurki daitezke, gainera:

<i>aitorensemea, gentil'homme</i>	<i>gentil'homme, aitorensemea</i> <i>chevalier, aitorensemea</i>
<i>lehiatcea, hâter, presser</i>	<i>hâter, lehiatcea</i> <i>presser, se hâter, lehiatcea</i> <i>precipiter, lehiatcea</i>

Edota zehaztasun gehiagoz:

<i>achala, croute</i>	<i>croute du pain, ogui achala</i>
<i>lorea, lilia, fleur</i>	<i>fleur, lorea</i> <i>fleur avant fruits, lilia</i>

3.2. Bigarren hipotesia: balizko hiztegitik EF eta FE-ra

Kontua areago berrazter daiteke, baldin eta gorago jaulkitako zerbait gogoratzen badugu: egiturazko azterketak erakutsi digu ezin dela pentsatu *EF*

izan dela bietan lehen: aitzitik, frantses zutabearen antolakuntzak argi eta garbi adierazten du lehenago ondutako frantsesa-euskara hiztegi baten bihurteta dela. Zenbait zantzutan oinarrituta, iradoki dugu hiztegi hau ez dela *FE* bera, dena dela, hau baino osoagoa zena baizik. Ongi asmatzen ari baldin bagara, beraz, gure ustez bada bai *EF*, bai *FE*, bi hiztegien iturri izan den aurreko frantsesa-euskara hiztegi bat.

Gure hipotesi osoa hau da: Harrietek ezagutzen duguna baino hiztegi zirriborro handiago bat egin zuten, dela laugarren liburuko hura —aditz trinkoak eta maileguak euskaratik kentzeko asmoz ondua—, dela gramatikaren 3. liburukia —aurreko bi liburukietan ez zeuden hitzak bilduko zituen hiztegi bat, prestatuxe zuena— (bietarako cf. gorago, § 1.1), edo dela beste bat, eta bertatik atera zituen *EF* eta *FE* eratzeko gaiak.

Lakarrak bi hiztegien artean aurkitu aldeak, beraz, lehen bezain zuzen eta garrantzizkoak dira, eta azalpen beretsukoak, baina abiapuntua zeharo aldatu da, bai eta zerrendak eratzeko erabilitako prozedurari buruz geneukan ustea.

Zuzen bagabiltza, hizkuntzen ordenak zenbait kontu erabakitzeaz gainera (generoa jaso ez jaso, eta abar), iturritik gai ezberdinak bildu zituen zerrenda baterako eta besterako, bakoitzean zer eta zenbat nahi zuten eta horren arabera.²²

Orokorrean, beraz, ez dago esaterik *EF*-tik *FE* garbiago bat atera zuela. Aitzitik, honen haritik zehaztu behar da *EF* berariaz dagoela maileguz beterik, berariaz sarrera gutxiago, eta sarrera bakoitzean euskal hitz gutxiago dauden bezalatsu.

4. Harrieten iturriak

Edozein hiztegi dela, izan litezkeen iturriak arakatzea oinarritzko zereginetako bat dugu, zeren eta hiztegiak gutxi baitago munduan, dena

²² Bideanabar, honek azaltzen ditu lehen hipotesiaren arabera "itzuriak" ziruditen sarrera ustez desagertuak, *EF*-n bai eta *FE*-n arrazoi argirik gabe ez daudenak, *FE*-n gehitutakotzat genituen horien pare.

bere burutik atera duenik.²³ Iturriak arakatzea hizteigilearen *background*-a ezagutzeko aukera bikaina izateaz gain, haren lan prozeduraz berri jakingarriak eman diezazkigukeen ikerbidea dugu. Nabarmena da, izan ere, Harrietek ez duela hiztegia bere kabuz osatu, bere etxeko euskara hutsean soilik oinarrituta. Aitzitik, hein oso handi batean (%70 inguru gure laginaren arabera) euskal hitzak iturri idatzietatik hartuak bide dira. Gutxieneko kontuan, bi iturri ziur izan ditu: Axular eta Voltaire. Baliteke, gainera, Leizarraga edo Xurio ere iturrien artean sartu behar izatea. Ikus ditzagun banan-banan.

4.1. Axular

Honen ekarria inoizko nabarien antzeman dezakegu berak pilatutako sinonimoak sarrera berean agertzen direnean (Lakarra 1994: 62-64):

arrerages, intresac, sensuac

...censuco eta interesecco diruaren irabacia pagatcen eztuenari... (Ax 81).

couper, ebaquitcea, picatcea

Baiña mahastiac behar cirela ebaqui eta picatu (Ax 408).

familier, ausart, trebe, entregu

...eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe (Ax 19).

Axular Harrieten iturri izan zela hala frogatu eta gero, idazle lapurtarraren lexikoa hizteigilearen zerrendekin erkatuz hainbeste kidetasun eta hain adierazgarriak aurkitzen dira, non halabeharrari oso leku gutxi geratzen baitzaio. Honela begiratuta, eta xehetasun filologikoetan sartu gabe, ez dago dudarik oso iturri garrantzizkoa dela, besteak baino emankorragoa, irudiz. Hona A eta L letretako gure laginean topatu ditugun kidetasun nabarienetako zenbait:

EF: abiadura, ancea, aiticic, aise, aisequi, aitorensemea, airatcea... larrutcea, lausengatcea, lausengua, arrontera, lasterrago, legata, lekhucoassuna, loratcea, loria...

²³ Lakarra da honetan ere aitzindari, testuak eta, beraz, beren artean litezkeen loturak anitzez gutxiago direla gogoratu baitu (cf. Lakarra 1994: 24, besteak beste), hiztegi zenbaitenak –Harrietenak barne– ikertzeaz landara.

FE: *axekhabeztatcea* "affliger", *lehentassuna* "aînesse", *nahiqundea* "ambition", *lurlana* "labourage", *segada* "lacet", *nekhaçalea* "laïque", *hitzcunça* "langue", *airatcea* "lever", *legata* "legat", *lchoa* "libre", *libratcea* "livrer"...

4.2. Voltaire

Hiztegiileen ohiturak ezagaturik, handia izango litzateke aurreko hiztegi argitaratu bakar bat eskura izan eta ez erabiltzea.²⁴ Arazoa horrexetan datza, alegia: ea eskura izan zuen, dakigularik Voltaire osorik —hiztegitxoa barne— argitaratu zen azkenekotik (1642) ia ehun urte igaro dira eta. Eta badirudi baietz. Dena dela, Voltoireren eragina frogatzea ez da lan xamurra, oso hitz gutxitan urruntzen baita beste iturrigaiak dakartenetik. Bestela ezin azal daitezkeen batetortzeak aurkitu behar ditugu, beraz. Huts bateratzailerik ezean, oraingoz eragina bi eratara froga dezakegu.

Batetik, bi lanak bat ditzaketen bitxikeriak edo ohiz kanpoko gertakariak aurkituz. Beheko adibideetan, Harrietek —ohi ez bezala, baina Voltoirek bezalaxe— (a) artikulua mugatua eta mugagabea eskaintzen ditu sarrera banatan; (b) segidako bi sarrera, biak mugagabe ematen ditu, eta (c) gramatika kategoria edota adiera banaketa ez ditu begiratzen (hiztegi osoko adibide bakarra da, oso oker ez banago):

	Harriet	Voltaire
(a)	<i>lieuë</i> , lekhoa <i>une lieuë</i> , lekhoa bat	<i>lieu</i> , leqhoua <i>vne lieue</i> , leqhoa bat
(b)	<i>midi</i> , eguerdi <i>minuit</i> , gauherdi	<i>midy</i> , egoberdy <i>mynuit</i> , gaberdy
(c)	<i>mort</i> , heriotcea, hilla	<i>mort</i> , hilla edo heriotzea

Bestetik, alfabetatzeak zuritzen ez dituen sarrera segidak:

Harriet	Voltaire
<i>chercher</i> , billatcea	<i>chercher</i> , bilhatzea

²⁴ Harriet bera lehenago bezala (cf. Lakarra & Urgell 1988, Lakarra 1991, Urgell 1992, etab.), Voltaire alde batera utzi izan dugu zeharo iturrien bilaketan. Harrietenean ez ezik, Pouvreaurenean iturri garrantzizkoa izan zela frogatu berri du Etxagibelek (2008), hain garrantzizkoa non ziurrenik –ikertzaileak hala deritzo, bederen– haren hiztegiaren ardatza bide baita. Voltoireren berbaloratzea Lakarraren argitalpenari (1997, 1999) zor zaio, inondik ere.

<i>chêne</i> , haritça	<i>chesne-arbre</i> , haritça ²⁵
<i>servir</i> , cerbitçatcea	<i>seruyr</i> , seruytzatcea
<i>serviteur</i> , cerbitçaria	<i>seruiteur</i> , seruytzaria
<i>servante</i> , nescatoa	<i>seruante</i> , nescatoua

Bien arteko erlazioa zantzu hauen bitartez erakutsi eta gero, ikus dezakegu Voltoireren hitz zerrendak ez ezik, liburuaren beste zatiek ere eragina izan bide dutela Harrieten lanean, gutxienez elkarrizketek:

EF: larrutcea "écorcher" (Volt 230 *larrotçea* "escorcher")...

FE: laburcea "accourcir" (Volt 135 *labourçequo* "pour accourcir"), *errezturna* "anneau" (Volt 247 *errestonaq* "bagues"), *arrobatçaillea* "larron" (Volt 145 *arrobatçalleriq* "larrons")...

4.3. Leizarraga

Honen eragina behar bezalako frogekin egiaztatzeko dago, baina badira aintzat hartzeko moduko aztarnak, bitara ekar ditzakegunak.

Alde batetik, *EF*-ko mailegu pilaketaren oinarrian egon liteke Leizarraga, anitz baitira —eta ez oso ohikoak— bietan kausitzen ditugunak:

acceptatcea, *açotea*, *affligitcea*, *ampola*, *armada*, *arroganta*, *ardita*, *attencionea*, *berga*, *benediçoiña*, *benedicatu*, *conquestatcea*, *colpatcea*, *communionea*, *crudela*, *delicatu*...

Bestetik, mailegu nabariez kanpoko zorrak ere ba bide dira, artean familia osoak:

frangoqui "abondamment", *frangatcea* "abonder", *gosetea* "affamé", *oneritcia* "ami", *chedatcea* "limiter"...

4.4. Xurio

Aurrekoek azaltzen ez dituzten hitz bereziok sala lezakete:

ahidura "lassitude", *ainxikhabetasun* "lâcheté", *largotasun* "liberalité"...

²⁵ *chesne* > *chêne* grafia aldaketari erreparatu behar zaio, hitza Harrietenean lehengo lekuan geratu bada ere. Frantses Akademiaren 1740ko hiztegian ezabatu omen zen lehenengoz, beste zenbait berrikuntzarekin batera, ahoskatzen ez zen kontsonante aurreko s hori, eta azentu zirkunflexuaz ordezkatu (Cohen 1987: 224). Harrieten modernotasunaren beste zantzu bat, bidenabar.

5. Ondorioak

Martin Harrieten gainerako lanak ezagutzerik ez badugu ere, gaitzerdi, hemen bildu dugun bere lekukotasunari esker Larresoroko notarioaren irudi osoagoa daukagu. Ez zen izan, bada, behingo gramatikagilea, frantsesaren amorez eta ezustean bezala gramatika bat egin zuena. Aitzitik, lehenen artean kokatu beharreko euskaltzale eta euskalari dugu: inor gutxi baino euskaldunak euren hizkuntzan alfabetatze aldera lan handiagoa egin zuen Harrietek, eta euskara deskribatze eta duintze aldera. Aurrekoekin alderatzekotan, esango nuke hainbat aldetatik Bidegarai eta Etxeberri Sarakoa dakartzala gogora. Hauek ez bezala, ordea, Harrietek asmatu zuen garai zail haietan argitara zitekeen lan bat bederen egiten, eta honegatik, hobeia izan zein ez, hauek baino gorago jarri behar dugu gure tradizioaren barruan: besteak isilean ia geratu ziren bitartean, Harrietek hurrengo urte eta mendeetan merezi zuen oihartzuna izateko parada izan zuelako, hain zuzen.

Irudi berri hau zeharo bat dator, bide batez, hiztegiaren analisiak ematen digunarekin, hots, aurreko euskal liburuak —Axular, Voltaire, Leizarraga, baita agian Xurio ere behinik behin— ezagutzen zituen eta ezinbestean garbizale eta hitzberrigile azaltzen zaigun hiztegiarekin.

Hiztegi lanari dagokionez, erakutsi ahal izan dugu ziurrenik frantsesa-euskara zerrenda handiago batez —agian aipatzen dituen bere beste lanetako batez— baliatu zela gramatikako bi hitz zerrendetan —*EF* eta *FE*-n— sartu zituen sarrerak hautatzeko eta, beraz, zerrenda bakoitzerako nahita hautapen ezberdinak egin zituela: mailegu gehiago eta sarrera gutxiago *EF*-n, euskal lexiko zainduago eta aberatsagoa *FE*-n.

Gogora dezagun Harrietek buruan dituen erabiltzaileak euskaldunak direla —elebakarrak edo, gehienez ere, oso elebidun eskasak—, eta xedea hauek frantsesez ikastea dela, kultura daitezentzat, egilearen beraren esanetan. Erabiltzailegai eta xede horien arabera izan behar, bada, hitz zerrendotan hizkuntzek hartzen duten lekua eta egitekoa. Lakarrak egin zerrenden arteko konparaketaren argitan, dena dela, azken xedea gehiago ematen du euskaldunek frantsesa ikasi eta gero euskaraz nola emango —era garbi batean— laguntzea dela, errazkeriaren errazkeriaz mailegu gordinetara

jo gabe, besteak beste. Hemen egin dugun formazko azterketak alde honetatik berretsi baino ez du egin Lakarraren ondorioa.

Bibliografia

- Cohen, M., 1987, *Histoire d'une langue. Le français*, Paris: Messidor/Éditions sociales.
- Etxagibel, J., *Silvain Pouvreauren iturriak*, Gasteiz: UPV/EHUko DEAko lan argitaragabea.
- Gómez, R., 1989, "Bonaparte printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak", *ASJU* 23:2, 355-392.
- & K. Sainz, 1995, "On the Origin of the Finite Forms", in L. Trask, J.I. Hualde y J.A. Lakarra (arg.), *Towards the History of the Basque Language*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 235-274.
- Lakarra, J.A., 1991, "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi", in J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (*ASJU*-ren gehigarriak 14), I, 217-258.
- (arg.), 1992a, *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoain: Andoaingo Udala, etab.
- , 1992b, "Larramendirekin aurreko hiztegiaren historia: aztergai eta gogoeta", in Lakarra 1992a, 279-312.
- , 1993, *XVIII. mendeko hiztegiaren etorkiez*, Gasteiz: UPV/EHUko tesi argitaragabea.
- , 1994, "Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)", *ASJU* 28:1, 1-178.
- , 1996, "Lexiko berrikuntza euskal hiztegiaren zaharrez: zenbat ikergai", *Uztaro* 19, 3-40.
- , 1997, "Hizkuntz eskuliburuaren tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interprète ou Traduction du François, Espagnol & Basque (~1620)*", *ASJU* 31:1, 1-66.
- , 1999, "*L'interprète ou traduction du français, espagnol & basque (~1620)*: II. Elkarrizketak", *ASJU* 33:2, 493-568.
- & B. Urgell, 1988, "Lécluse-ren Hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak (II)", *ASJU* 22:1, 99-211.
- Larramendi, M., 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villagordo Alcaraz. [Faks., Donostia: Hordago, 1979].
- , 1745, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Donostia. [Berrarg. faks. Donostia: Txertoa, 1984].
- Mitxelena, K., 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia. Diccionario General Vasco* (15 lib.). Bilbo: Euskaltzaindia, etab.
- OEH = Mitxelena 1987-2005.
- Osselton, N.E., 1995 [1989], "Alphabetization in early dictionaries of English", in *Chosen words. Past and present problems for dictionary makers*. Exeter: University of Exeter Press, 117-126.
- Oyharçabal, B., 2001a, "Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz". *Litterae Vasconicae*, 9, 9-46.
- , 2001b, "Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles". *Lapurdum* 6, 219-288.
- Quemada, B., 1967, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863). Etude sur leur histoire, leurs types et leurs méthodes*. Paris: Didier.

- Sarasola, Ibon, 1998, *Irakaskuntza egitasmoa [Euskal Lexikografiaren historiaz]*, Bilbo: UPV/EHU (argitaragabea).
- Svensén, B., 1993, *Practical Lexicography. Principles and methods of dictionary-making*. Oxford/New York: Oxford University Press.
- Urgell, B., 1992, "Martin Harriet Añibarrorengan", *ASJU* 26:1, 221-258.
- , 1998, "Hiztegi Hirukoitza eta *Diccionario de Autoridades* erkatuz (I): oinarritzko ezaugarri zenbait", *ASJU* 32:1, 109-163.
- , 2000, *Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez*, Gasteiz: UPV/EHUko tesi argitaragabea.
- , 2002a, *Euskal Lexikografia*, Gasteiz: UPV/EHUko irakaskuntza proiektu argitaragabea. [orain <http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/index.php?langue=eu>]
- , 2002b, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren Eranskina: Saio bat hiztegi gintzaren testukritikaz*. Bilbo: Monumenta Linguae Vasconum. Studia et Instrumenta 1 (= ASJU-ren Gehigarriak 47).
- Vinson, J., [1891-1898], *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Berrarg. faks. J. Urquijoren oharrekin (*ASJU*-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.